

Giro politiko suminduarengatik, Pujolek Aznarrekin egin nahi duen bilera aurreratu du

PSOEren eta PPren arteko erasoek «asko kezkatzen» dutela ohartarazi du CiUk

Jose Maria Aznar, Espainiako Gobernuko presidentea, eta Jordi Pujol, Kataluniako lehendakaria, ostiralean elkarrizketatuko dira Moncloan, CiUren eta PPko Gobernuaren artean azkenaldian sortu diren desadostasunak konpontzeko asmoz. Bileran mintzagai izango da Espainiako politikan indarra hartzen ari den giro sumindua ere, CiU oso kezkatutik baitago.

Erredakzioa / Donostia

XAVIER TRIAS Kataluniako Generalitateko Lehendakaria sailburuak atzo azaldu zuenez, Pujolek bileran aipatuko dituen gai nagusiak dira Kataluniako osasun sistemaren finantzaketa eta Enplegu Institutuaren (INEM) traspasoa. Pujolek argi esango dio Aznarri 1998ko aurrekontuak negoziatu aurretik ezinbestekoa dela osasun sistemaren finantzaketa loturik egotea.

Aznarrek eta Pujolek katalana ere izango dute aipagai, Kataluniako presidentea ez baitago gustura gai honetan PPK duen jarrerarekin. Kataluniako eskolako hizkuntz murgilketaren arazoak konponduta dagoela dirudien arren, katalanaren batasunari buruz desadostasun handiak dituzte PPK eta CiUk. Izan ere, Valentziako PPK, UV erregionalista lagun duenez, valentziera eta katalana bi hizkuntza direla dio. Oinarri linguistikorik gabeko baieztapen hori ulertzen zuela azaldu zuen Aznarrek, eta Pujol haserretu egin zen. Kataluniako PPK berak ere onartzen du Katalunian, Valentzian eta Balear Uharteetan hitz egiten dena hizkuntza bakarra dela, baina aldaerekin.

PPren eta PSOEren arteko borroka areagotu duen telebista digitalaren gerrak erdi-erdian harrapatu du CiU eta egoera txarrean utzi, PPren eta IUren artean kirol emanaldietarako lortutako itunak TV3 telebista autonomikoaren kalterako izango dela uste baitute nazionalista katalanek. Gaia mahai gainean izango dute bi buruzagi politikoei. Ogasunak ustez zenbait enpresari barkatu zizkien 200.000 milioi pezetan auziak ere buruko mina ematen dio CiUri, La Caixa Bartzelonako aurrezki kutxa nagusia barkatutakoan artean azaldu delako.

Gai nagusia giro politikoa izango da • Baina Aznarren eta Pujolen arteko elkarrizketan gai esanguratsuenak, agian, Espainiako giro politikoa izango da. Triasek onartu egin zuen gai horri buruz hitz egingo dela «ezinbestean», bere hitzetan Aznar-Pujol bilera aurreratzeko arrazoietako bat



Jose Maria Aznar eta Jordi Pujol Moncloan, iazko maiatzean.

BARRIOPEDRO / EFE

izan zelako. Hasiera batean, presidente katalanak uda baino lehenago egin nahi zuen eta aurrekontuei buruz mintzatu, baina Antonio Asensio Antena 3 telebista kateko presidentea ustez jasotako mehatxuek iritzia aldatu diote. «Badago jendea kezkatutik eta beldurtutik», onartu zuen Triasek, eta Miguel Angel Rodriguez Komunikaziorako Estatu idazkariak mehatxuek gezurtatu izana ez zaiola «nahikoa» iruditzen azpimarratu zuen. «Gobernuak azaldu egin

behar du egia den ala ez, eta egia bada, neurriak hartu berriz ez gertatzeko».

Josep Lopez de Lerma CiUko diputatuak ere onartu zuen giro politikoa «arras gaiztotuta» dagoela eta bere taldea gai honekin «oso-oso kezkatuta» dagoela. Lopez de Lermak elkarren arteko eraso bortitzak amaitzeko eskatu zion PSOEri eta PPri, eta egoera CiUk Gobernu sozialistari sustengua kendu zionekoaren antzekoa dela gaineratu zuen.

Ika-mika ez da amaitu • Julio Anguita IUko koordinatzaileak ere «seriotasuna» eskatu zuen bizitza politikorentzat eta bi alderdi nagusien arteko «zabor dialektikoa» amaitzeko exijitu zien, «herritarren mesederako».

Ez dirudi, ordea, oraindik popularrek eta sozialistek tentsioa baretzeko asmoa dutenik. Alfredo Perez Rubalcaba PSOEko diputatuak ziurtatu zuen Gobernuak ez duela «askatasunetan sinisten», eta aurka dituenak isiltzeko bereak eta bi egitea leporatu zion. Rubalcabaren arabera, larria da Moncloako norbaitek Asensio kartzelaz mehatxatu izana, baina are larriagoa da mehatxu horiek gauzatzea «Estatuko fiskal nagusiaren ekimenaren bidez».

Rodriguezek gezurtatu egin zuen atzo berak edo Gobernuak inork berriro Asensio mehatxatu duela eta Asensioaren komunikazio taldeak, Grupo Zetak, askatasun osoa duela ziurtatu zuen. Nolanahi ere, Rodriguezek nabarmendu zuen ez duela auzitara eramango Asensio, akusazio horiek egin dituen arren. X

Beste kolpe bat Gomez de Liañorentzat

Efe / Madril .- Entzutegi Nazionalak bertan behera utzi zuen atzo Javier Gomez de Liaño epaileak Sogecable auziaren sumarioa sekretupean gordetzeko emandako agindua. Entzutegi Nazionalaren arabera, gaia sekretupean izatea «ez da arrazoizkoa, neurririk gabekoa eta guztiz desagokoa da». Sogecable auzian, Jaime Capmany Abc eta Epocako kazetariaren salaketa baten ondotik, Gomez de Liaño ikertzen ari da Canal Plus telebista kateak bere bezeroek emandako fidantzekin —23.000 milioi pezetakoak— zer egin duen. Bigarren aldia da Entzutegi Nazionalak Gomez de Liañoren erabaki bat atzera bota duena afera honetan, aurretik Jesus de Polanco Canal Pluseko jabeari Espainiatik ateratzeko debekua altxa ziolako.

Mariscal:
 «Ortiz Urkulo ez zen gai krisia konpontzeko»

■ **Justizia ministroak**
 ez du uste egoera ahulean geratu denik

Efe / Madril

JUAN ORTIZ URKULO Estatuko fiskal nagusi ohiak «ez zuen gaitasunik» Entzutegi Nazionalako fiskaltzan sortutako arazoak konpontzeko eta horregatik ordezkatu zuen Gobernuak, atzo Margarita Mariscal de Gante Justizia ministroak azaldu zuenez.

Granadan egindako adierazpenetan, Justizia ministroak azpimarratu zuen Gobernu osoaren erabakia izan zela Ortiz Urkulo ordezkatzea eta gezurtatu egin zuen ordezkapenaren aurkakoa zenik. «Hala izan balitz, ez nukeen onartuko», azaldu zuen. Krisi horrek berari kalte egin al dion galdetu eta Mariscalek erantzun zuen Gobernuan ez duela inork bere iraupena auzitan jarri.

Mariscalek defenditu egin zuen Ortiz Urkuloren ordezkoa Jesus Cardenal Euskal Autonomi Elkarte (EAE) Justizia Auzitegi Nagusiko fiskalburua izatea eta berak proposatu zuela gaineratu zuen. «Hautagai egokia da, 37 urte daramatzalako fiskal gisa lanean, oso fiskaltza zailan lanean gainera». Entzutegi Nazionalan «ETArekin eta haren inguruaren gaiak» nagusi izanik, EAEn lanean izan den fiskala izendatzea are egokiagoa zela gaineratu zuen. Era berean, Mariscalek Cardenal sinismenak eta pentsakera —Opus Deiko kide da eta ultrakontserbadoria— errespetatzea eskatu zuen. X

Zergak bost puntu jaitziko dituela berretsi du Juppek

Efe / Paris

RPR-UDF eskuineko batasunak maiatzaren 25eko eta ekainaren 1eko legebiltzarerako hauteskundeak irabazten baditu, zergak % 5 gutxituko direla ziurtatu zuen atzo Alain Juppe lehen ministroak. Zerga gutxitzea bost urteko epean egingo litzateke eta gutzira errenta zergaren bilketa 75 miliar liberatan (1,87 bilioi pezeta) murriztuko dela jakinarazi zuen. Aldi berean, eskuina hauteskundeetan garaile izaten bada, soldata txikienen gaineko karga sozialak txikituko egingo dira, baita gaixotasun aseguru kotizazioak ere. Enpresak sortzeagatik edo horien jabeen aldaketarengatik ordaintzen den zerga ere apalduko litzateke. Zergei buruzko neurri horiek, errenta zergaren murrizketa izan ezik, Gobernu berria lanean hasi eta 40 egunerako jarriko lirateke indarrean, baina epe horretan ezingo balitz, lehen sei hilabeteetan egingo lirateke. X